# I ARABAKO FORU ALDUNDIA I
# DIPUTACION FORAL DE ALAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**7.002**

**107/2000 FORU DEKRETUA, azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez, atxikipena egiteko prozedura ezartzen da, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapekoek establezimendu iraunkorraren bitartekaritzarik gabe balore negoziagarrietatik lortutako interes eta dibidendoen gainean egin beharreko atxikipenaren prozedura, alegia.**

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapekoek establezimendu iraunkorraren bitartekotzarik gabe lortutako errentak atxikipenaren edo aldez aurreko ordainketaren pean daude, zerga hori arautzen duen araudiak ezarritako baldintzetan.

Araudi horrek ezartzen duenez, atxikipena egiteko betebeharra duten subjektuek zergaren kuotaren adinako zenbatekoa atxiki beharko dute, edo aldez aurretik ordaindu, eta zenbateko hori araudi berorretan zerga-zorra zehazteko ezarritako xedapenen arabera kalkulatuko da, edo zergapetze bikoitza ekiditeko aplika daitekeen Hitzarmen batean ezarritakoen arabera. Bestalde, oinarrizko araudi horrek xedatzen duenez, ez da atxikipenik edo aldez aurreko ordainketarik egingo, baldin eta, araudi horretako 13. artikuluak edo zergapetze bikoitza ekiditeko aplika daitekeen Hitzarmenen batek xedatutakoaren arabera, errenta horiek salbuetsita badaude.

Hortaz, dibidendo eta interesen gainean egin beharreko atxikipena zehazteko, eskuratu den errendimenduaren zenbateko osoari zergapetze-tipo orokorra ezarriko zaio, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudiaren 24.1.a) artikuluan jasotakoa, hain zuzen ere. Hala ere, arau orokor horrek salbuespen asko ditu, zergapekoak egiaztatzen duen zerga-egoitzak eraginda, eta, horrela, batzuetan ezin izango da atxikipenik egin, eskuratutako errendimenduak salbuetsita daudelako, edo bestetan, atxikipena zergapetze-tipo murriztu baten arabera egin beharko da, zergapetze bikoitza ekiditeko Espainiak sinatutako Hitzarmen baten ezarritako zergapetzearen mugak aplikatu ahal direlako.

Egungo atxikipen eta aldez aurreko ordainketen sistemak, balore negoziagarrietako interes edo dibidendoak ordaintzerakoan, atxikipenak edo aldez aurreko ordainketak zuzen egiteko, eskatzen du ezen atxikitzaileek ezagut dezatela interes edo dibidendoen hartzailea Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapeko dela errentak establezimendu iraunkorraren bitartekotzarik gabe eskuratzeagatik; orobat, eskatzen du, bidezko denean, ezagut dezala hartzaile horren zerga-helbideko herrialdea ere, zeren eta horrela jakingo baitu interes edo dibidendoen gaineko atxikipen edo aldez aurreko ordainketa Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudiaren 24.1.a) artikuluko zergapetze-tipo orokorrarekin egin behar duen ala hartzaileak egiaztatutako zerga-helbidearen arabera aplika daitekeen Hitzarmeneko zergapetze-tipo murriztuarekin egin behar duen, edo atxikipena edo aldez aurreko ordainketa baztertu egin behar duen errentak, aplika daitekeen barneko araudiaren edo Hitzarmenaren arabera, salbuetsita egoteagatik.

Hala ere, balore negoziagarriak finantza-erakunde jakin batzuetan egon ohi dira gordailuan, eta horrek atxikipena egiteko betebeharra betetzerakoan arazoak eragiten ditu: izan ere, baloreen jaulkitzaile-atxikitzaileak, interesak ordaintzeko betebeharra sortzen denean edo dagokion dibidendoa banatu behar duenean, finantza-erakunde horiei ordaintzen dizkie errendimenduak, bakoitzak zenbat titulu gordetzen duen gordailuan, horren arabera, eta finantza-erakunde horiek, segidan, baloreen jabeei ordaintzen dizkiete errendimendu horiek; eta horrela, jaulkitzaileak ezin ditu ezagutu azken hartzaileen izaera (ez-egoiliarren errentaren zergaren zergapekoarena) eta zerga-egoitzako herrialdea.

Aitzitik, ez da horrelakorik gertatzen finantza-aktiboen eskualdaketa, amortizazio eta ordainketatik sortutako errendimenduetan, eta horregatik, horiek prozedura honetan sartzea ez da beharrezko ikusi.

Foru Dekretu honetako prozeduraren helburua da, gordailudun erakundeek atxikitzaile-jaulkitzaileari emandako informazioaren arabera, araudian ezarritako zergaren zenbatekoaren adinako atxikipe-

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**7.002**

**DECRETO FORAL 107/2000, del Consejo de Diputados de 7 noviembre, que establece el procedimiento para hacer efectiva la aplicación de retención sobre los intereses o dividendos derivados de la emisión de valores negociables, obtenidos sin mediación de establecimiento permanente por contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.**

Las rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente por contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes están sujetas a retención o ingreso a cuenta en los términos de la normativa reguladora de este tributo.

Tal normativa establece que los sujetos obligados a retener deberán retener o ingresar a cuenta una cantidad equivalente a la cuota del Impuesto, calculada aplicando las disposiciones previstas en la misma para determinar la deuda tributaria o las establecidas en un Convenio para evitar la doble imposición que resulte aplicable. Por otra parte, en dicha normativa básica se dispone que no procederá practicar retención o ingreso a cuenta cuando las rentas estén exentas en virtud de lo dispuesto en su artículo 13 o en un Convenio para evitar la doble imposición que resulte aplicable.

En consecuencia, la retención que debe practicarse sobre dividendos e intereses será el resultado de aplicar al importe íntegro del rendimiento obtenido el tipo general de gravamen del artículo 24.1.a) de la normativa del Impuesto sobre la Renta de no Residentes. No obstante, esta regla general presenta múltiples excepciones, condicionadas por la residencia fiscal que acredite el contribuyente, dando lugar, en unos casos, a que no proceda practicar retención si los rendimientos obtenidos están exentos o, si resultan aplicables los límites de imposición establecidos en un Convenio para evitar la doble imposición suscrito por España, a que la retención deba practicarse a un tipo reducido.

El sistema actual de retenciones e ingresos a cuenta exige que en el pago de intereses o dividendos derivados de la emisión de valores negociables, para una correcta aplicación de las retenciones o ingresos a cuenta, los retenedores deban conocer la condición del perceptor como contribuyente del Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas sin mediación de establecimiento permanente, así como, cuando proceda, el país de residencia fiscal del mismo, a los efectos de hacer efectiva, bien la práctica de la retención o ingreso a cuenta sobre los intereses o dividendos al tipo general de gravamen del artículo 24.1.a) de la normativa del Impuesto sobre la Renta de no Residentes o al tipo reducido establecido en el Convenio que resulte de aplicación en función de la residencia fiscal acreditada por el perceptor, o bien la exclusión de retención o ingreso a cuenta por tratarse de rentas exentas en virtud de la normativa interna o del Convenio que resulte aplicable.

Sin embargo, el hecho de que los valores negociables se encuentren depositados, con carácter general, en determinadas entidades financieras origina problemas prácticos en la aplicación de la obligación de retener, en la medida en que el retenedor-emisor de los valores, en el momento del vencimiento de los intereses o de la distribución del dividendo correspondiente, abona los rendimientos a las entidades depositarias en función del número de títulos que en cada una de ellas se encuentren depositados, para que éstas, a su vez, los abonen a los titulares de los valores, sin conocer el emisor la condición de los perceptores finales ni su país de residencia.

Por el contrario, esta situación no se produce respecto de los rendimientos derivados de la transmisión, amortización o reembolso de activos financieros, por lo que se considera que no es necesaria su inclusión en el ámbito de este procedimiento.

El procedimiento desarrollado en el presente Decreto Foral tiene como finalidad permitir la aplicación de las retenciones en cuantía equivalente al impuesto previstas en la normativa, o la exclusión de

nak egin ahal izatea, edo errendimendua atxikipenetik kanpo uztea eta ez egitea.

Zor publikotik sortutako errenten inguruko atxikipenaren edo aldez aurreko ordainketaren salbuespena hemen ezartzen den prozedura honetatik kanpo uztea komenigarri jo da, errenta horiek indarreko araudiaren arabera atxikipenetik salbuetsita daudenean eta Foru Dekretu honetako helburu bera duen prozedura berezi bat ezartzen zaienean.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak emandako txostena eta Kontsulta Batzordeak emandakoa ikusirik.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru-diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko egunez egindako bilkuran eztabaidatu ondoren,

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapekoek establezimendu iraunkorrik gabe balore negoziagarrietatik lortutako interes eta dibidendoen gainean egin beharreko atxikipenaren prozedura (kasu bakoitzean, dagokion zergapetze-tipoaren arabera egin beharreko atxikipena), edo atxikipen hori ez egitekoa ezartzen da hemen, ondoren datozen 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Prozedura hau ezarriko da baldin eta, interes edo dibidendo horien ordainketan, Espainian helbidea, egoitza edo ordezkaritza izan eta balore horien errentak gordailuan eduki edo horiek kobratzeko gestioak egiten dituzten finantza-erakundeek parte hartzen badute.

Prozedura hau ez zaie aplikatuko zor publikoaren baloreetatik datozen interesei, Foru Dekretu honetako helburu bera duen prozedura berezi bat aplikatzen zaienean.

**2. artikulua.**- Atxikipena ez aplikatzeko prozedurak, edo atxikipena zergapetze-tipo murriztu baten arabera egitekoak, zergapetze bikoitza ekiditeko Espainiak sinatutako Hitzarmenek ezarritako zergapetzearen mugak direla-eta aplikatu behar denak, eskakizun hauei erantzun beharko die:

1. Baloreak jaulki dituen erakundeak, berak zuzenean edo bere ordainketa-agentearen bitartez, interesak sortzen diren aldiko edo dibidendoak banatzeko orduan, une horretan aplikatzekoa den atxikitze-tipo orokorra interes edo dibidendo guztiei aplikatuz ateratzen den zenbateko likidoa transferituko die gordailudun erakundeei (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zergaren arauetan ezarritakoaren arabera aplikatzekoa den atxikipen-tipo orokorraz ari gara).

2. Gordailudun erakundeek, kupoiaren muga-egunaren edo dibidendoa banatzen den ondoko hilabetearen 10a baino lehen, balore/jaulkipenaren kode bakoitzeko eta interesak sortzeko edo dibidendoak banatzeko egun bakoitzeko, zerrenda zehaztu bana aurkeztu beharko dute erakunde jaulkitzailearen aurrean, Espainian establezimendu iraunkorraren bitartekotzarik gabe eskuratutako errentengatik Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapeko diren titularrena. Zerrenda horrek honako datuak jaso beharko ditu:

- Baloreen ISIN kodea, Baloreen Merkatuaren Estatu Batzordearen urriaren 8ko 1/1998 Arau Teknikoaren arabera eratuta.

- Errenta mota (interesak edo dibidendoak)

- Interesak sortzeko edo dibidendoak banatzeko eguna.

- Baloreen jabearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, edukiz gero.

- Pertsona mota: fisikoa edo juridikoa (F, J).

- Zerga-egoitzaren herrialdearen kodea, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1999ko abenduaren 9ko (abenduaren 16ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) Aginduak laugarren xedapen gehigarrian aipatzen duen herrialde eta lurraldeen kodeen arabera.

- Izen-abizenak eta sozietatearen izena.

- Helbidea.

- Interesak sortzeko egunean edo dibidendoak banatzeko egunean zenbat baloreren jabe den.

- Jabe bakoitzaren orotarako errendimendu gordina.

- Jabe bakoitzari behar baino gehiago atxikitakoaren ehunekoa.

- Jabe bakoitzari behar baino gehiago atxikitakoaren zenbatekoa.

3. Baloreen jabeek egiaztatuta eduki beharko dute erakunde gordailudunen aurrean Hitzarmen batek ezarritako zergapetzearen mugak

retención, en base a la información facilitada por las entidades depositarias al retenedor-emisor.

Se considera conveniente excluir del ámbito de aplicación del procedimiento que a continuación se establece, la exoneración de retención o ingreso a cuenta en relación con las rentas derivadas de los valores de la Deuda Pública, que según la normativa vigente estén exceptuados de retención, a los que se aplique un procedimiento específico que responda a la misma finalidad que el previsto en el presente Decreto Foral.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

A propuesta del Diputado Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada el día de hoy,

DISPONGO:

**Artículo 1.**- Se establece, de acuerdo con lo previsto en los artículos 2 y 3 siguientes, el procedimiento para hacer efectiva la práctica de retención, al tipo que corresponda en cada caso, o la exclusión de retención, sobre los intereses o dividendos derivados de la emisión de valores negociables obtenidos sin mediación de establecimiento permanente por contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, cuando en el procedimiento de pago intervengan entidades financieras domiciliadas, residentes o representadas en España que sean depositarias o gestionen el cobro de las rentas de dichos valores.

Este procedimiento no será de aplicación a los intereses procedentes de valores de la Deuda Pública a los que se aplique un procedimiento específico cuya finalidad sea similar a la prevista en el presente Decreto Foral.

**Artículo 2.**- El procedimiento para hacer efectiva la exclusión de retención, o la práctica de retención a un tipo reducido por aplicación de los límites de imposición establecidos en los Convenios para evitar la doble imposición suscritos por España, deberá ajustarse a los siguientes requisitos:

1. La entidad emisora transferirá, directamente o a través de su agente de pagos, en cada fecha de vencimiento de los intereses o en el momento de la distribución de los dividendos, a las entidades depositarias, el importe líquido que resulte de la aplicación del tipo general de retención vigente a esa fecha, conforme a la normativa reguladora del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, a la totalidad de los intereses o dividendos.

2. Antes del día 10 del mes siguiente al mes en que venza el cupón o se distribuya el dividendo, las entidades depositarias deberán presentar ante la entidad emisora, por cada código de valor/emisión y fecha de vencimiento/distribución, una relación detallada de los titulares contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas en territorio español sin mediación de establecimiento permanente que deberá contener los siguientes datos:

-Código ISIN de los valores, configurado de acuerdo con la Norma Técnica 1/1998, de 8 de octubre, de la Comisión Nacional de Mercado de Valores.

-Tipo de renta (intereses o dividendos).

-Fecha de vencimiento/distribución.

-Número de identificación fiscal del titular de los valores, si lo tuviera.

-Tipo de persona: Física o Jurídica (F, J).

-Código del país de residencia fiscal, de acuerdo con la relación de códigos de países y territorios a que se refiere la Disposición Adicional Cuarta de la Orden del Ministerio de Economía y Hacienda de 9 de diciembre de 1999 (“Boletín Oficial del Estado” del 16).

-Apellidos y nombre o razón social.

-Domicilio.

-Número de valores de los que es titular en la fecha de vencimiento/distribución.

-Rendimiento bruto total de cada titular.

-Porcentaje retenido en exceso a cada titular.

-Importe retenido en exceso a cada titular.

3. Los titulares de los valores deberán tener acreditado ante las entidades depositarias su derecho a la aplicación de los límites de

aplikatzeko eskubidea, edo atxikipenetik kanpo uzteko eskubidea. Gordailudun erakundeek, goiko zenbakian adierazitako zerrenda egiterakoan, zerrenda erakunde jaulkitzaileari igortzerako eskubide hori egiaztatuta daukaten baloreen jabeak sartu beharko dituzte bertan.

4. Zerrenda zehatz hori jaso bezain laister (Espainian, establezimendu iraunkorraren bitartekaritzarik gabe, errentak eskuratzeagatik, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapeko direnen zerrenda, artikulu honetako 2. lerroaldean aipatzen direnena, alegia), erakunde jaulkitzaileak, zuzenean edo ordainketa-agentearen bitartez, atxikipenetik kanpo uzteko eskubidea duten zergapekoei atxikitako zenbatekoa edo Hitzarmen bateko zergapetze-mugak ezartzeko eskubidea duten zergapekoei muga horien gainetik atxiki zaien zenbatekoa transferituko die gordailudun erakundeei.

5. Gordailudun erakundeek lehenbailehen ordainduko diete zergapekoei (Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapekoak, Espainian, establezimendu iraunkorraren bitartekaritzarik gabe, errentak eskuratzeagatik), erakunde jaulkitzailearen kontura, atxikitako zenbatekoa edo, hala balegokio, sobera atxikitakoa.

6. Atxikipena Hitzarmen bateko zergapetze-mugak aplikatuta egin dakien eskubidea edo atxikipenetik kanpo uztekoa egiaztatzeko, zergapekoek honako agiriekin egiaztatu beharko dute beren zerga-egoitza:

- Atxikipenetik kanpo uztea barruko araudiaren aplikazioaren eraginez gertatzen denean, egoitza daukan herrialdeko zerga-agintariek emandako zerga-egoitzaren egiaztagiria.

- Atxikipenetik kanpo uztean edo, Hitzarmen bat aplikatuz, atxikipena zergapetze-tipo murriztuarekin egiten denean, kasuan kasuko zerga-agintaritzak emandako zerga-egoitzaren egiaztagiria, bertan berariaz adieraziz zergapekoa egoitzadun dela Hitzarmenak zehazten duen zentzuan. Hala ere, atxikipena Hitzarmen baten jasotako zergapetze-mugarekin egiten denean, eta Hitzarmen hori garatzen duen Agindu batek horretarako berariazko idazki bat erabili beharra ezartzen badu, idazki hori aurkeztuko da ziurtagiriaren ordez.

Goiko lerroalde horietan aipatzen diren egoitza-ziurtagiriek urtebeteko iraupena izango dute, emanez gero.

**3. artikulua.**- Atxikipena Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudiko 24.1.a) artikuluaren zergapetze-tipo orokorraren arabera egiteko prozedura, hemen aipatzen diren eskakizunen araberakoa izango da, baldin eta erakunde jaulkitzaileak, atxikipena egiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren araudiko zergapetze-tipo orokorra erabili badu:

1. Erakunde jaulkitzaileak, interesak sortzeko edo dibidendoak banatzeko egun bakoitzean, eskuratutako interes edo dibidendo guztiei egun horretan indarrean den zergapetze-tipo orokorra — Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren araudiaren araberakoa— aplikatuz ateratzen den zenbateko likidoa transferituko die erakunde gordailudunei.

2. Baloreak gordailuan dituzten erakundeek, balore-/jaulkipenkode bakoitzeko eta interesak sortzeko edo dibidendoak banatzeko egun bakoitzeko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudiko 24.1.a) artikuluko zergapetze-tipo orokorrarekiko atxikipena aplikatuko zaien balore-jabeen zerrenda orokor bat aurkeztuko diote erakunde jaulkitzaileari, beren ordainketa-agentearen bitartez (Errentak establezimendu iraunkorrik gabe eskuratzeagatik Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapeko diren baloreen jabeen zerrenda). Bereziki ez-egoiliarren kontuen edo kanpoko inbertsioen jabeak sartuko dituzte zerrenda horretan, baldin eta establezimendu iraunkorrik gabe errentak eskuratzeagatik Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapeko badira, eta berei buruz atxikipenetik kanpo uzteko eskubidea edo atxikipenean zergapetzearen mugak aplikatzeko eskubidea egiaztatzeko agiririk ez badute.

Zerrenda horrek erakunde jaulkitzailearen esku egon beharko du kupoiaren muga-egunaren edo dibidendoa banatzeko egunaren ondoko hilabetearen 10a baino lehen.

Zerrenda orokorrak berori aurkezten duen erakundearen datuak zein erakunde horrek ordezkatzen dituen beste erakunde gordailudun batzurenak hartu ditzake bere baitan.

Honako datu hauek eduki beharko ditu:

- Zerrenda aurkezten duen erakundea.

imposición de un Convenio, o a la exclusión de retención. Las entidades depositarias elaborarán la relación indicada en el número anterior incluyendo a los titulares de los valores que en el momento en que vaya a procederse a la remisión de la relación a la entidad emisora tengan acreditado ese derecho.

4. La entidad emisora, tan pronto como reciba la relación detallada de los titulares contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas en territorio español sin mediación de establecimiento permanente a que se refiere el apartado 2 anterior del presente artículo, transferirá de forma inmediata, directamente o a través de su agente de pagos, a las entidades depositarias el importe retenido a los contribuyentes con derecho a aplicar la exclusión de retención o el importe retenido en exceso sobre los límites de imposición establecidos en Convenios respecto de aquellos contribuyentes con derecho a la aplicación de los mismos.

5. Las entidades depositarias abonarán inmediatamente, por cuenta de la entidad emisora, el importe retenido o, en su caso, el exceso de retención, a los contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas en territorio español sin mediación de establecimiento permanente.

6. A los efectos de acreditar el derecho a la práctica de retención aplicando los límites de imposición de un Convenio o a la exclusión de la misma, los contribuyentes deberán justificar su residencia fiscal mediante la siguiente documentación:

-Cuando la exclusión de retención se produzca por aplicación de la normativa interna, mediante un certificado de residencia fiscal expedido por las autoridades fiscales del país de residencia.

-Cuando la exclusión de retención o la retención se practique a tipo reducido, en aplicación de un Convenio, con un certificado de residencia fiscal expedido por la autoridad fiscal correspondiente, en el que deberá constar expresamente que el contribuyente es residente en el sentido definido en el Convenio. No obstante, cuando se practique la retención aplicando un límite de imposición fijado en un Convenio desarrollado mediante una Orden en la que se establezca la utilización de un formulario específico, se justificará con el mismo en lugar del certificado.

Los certificados de residencia a que se refieren los párrafos anteriores tendrán un plazo de validez de un año a partir de la fecha de su expedición.

**Artículo 3.**- El procedimiento para hacer efectiva la práctica de retención al tipo general de gravamen del artículo 24.1.a) de la normativa, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, cuando la entidad emisora ha practicado inicialmente la retención al tipo general previsto en la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, deberá ajustarse a los siguientes requisitos:

1. La entidad emisora transferirá, directamente o a través de su agente de pagos, en cada fecha de vencimiento de los intereses o de distribución de dividendos, a las entidades depositarias, el importe líquido que resulte de la aplicación del tipo general de retención vigente a esa fecha, conforme a la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, a la totalidad de los intereses o dividendos.

2. Las entidades depositarias de los valores presentarán ante la entidad emisora, a través de su agente de pagos, por cada código de valor/emisión y fecha de vencimiento/distribución, una relación global referida a los titulares de valores que tengan la condición de contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas sin mediación de establecimiento permanente a los que se va a aplicar la retención al tipo general de gravamen del artículo 24.1.a) de la normativa del Impuesto sobre la Renta de no Residentes. En particular, se incluirá a los titulares de cuentas de no residentes o de inversiones extranjeras que sean contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas sin establecimiento permanente, respecto de los cuales no dispongan de la documentación que acredite su derecho a la exclusión de retención o a la práctica de la misma aplicando los límites de imposición.

La citada relación deberá estar en poder de la entidad emisora antes del día 10 del mes siguiente al mes en que venza el cupón o se distribuya el dividendo.

La relación global podrá incluir tanto los datos de la propia entidad presentadora como de otras entidades depositarias a las que aquélla represente.

La relación deberá contener los siguientes datos:

-Entidad presentadora.

- Baloreak jaulki dituen erakundea.

- Baloreen ISIN kodea, Baloreen Merkatuko Estatu Batzordearen urriaren 8ko 1/1998 Arau Teknikoaren arabera eratuta.

- Errenta mota (interesak edo dibidendoak).

- Interesak sortzeko edo dibidendoak banatzeko eguna.

- Zerrendan jasotako gordailudun erakunde bakoitzaren identifikazio fiskaleko Zenbakia.

- Zerrendan jasotako gordailudun erakunde bakoitzaren klabea.

- Zerrendan jasotako gordailudun erakunde bakoitzaren sozietate-izena.

- Zerrendan jasotako erakunde bakoitzak atxikipen gehigarria aplikatuko zaien zenbat balore dituen gordailuan.

- Gordailudun erakunde bakoitzeko, orotarako zenbateko gordina, atxikipen gehigarria aplikatuko zaiona

- Atxikipen gehigarriaren ehunekoa.

- Erakunde gordailudun bakoitzeko, atxikipenaren zenbatekoa.

3. Aurreko 2. artikulu horretako zerrenda orokorra erakunde jaulkitzaileari bidali bezain laister, eta , beti ere, interesak sortzeko egunaren edo dibidendoak banatzeko egunaren ondoko hilabetearen 10a baino lehenago, zerrendaren arabera ateratzen den atxikipen gehigarriaren zenbatekoa ordainduko dio erakunde gordailudunak erakunde jaulkitzaileari, errendimendu horien gainean hasieran egindako atxikipenekin batu eta dagokion kontzeptuaren pean ogasunaren diru-kutxan sar dezan.

AZKEN XEDAPENA

Foru Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko azaroaren 7a.– Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru-diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

-Entidad emisora.

-Código ISIN de los valores, configurado de acuerdo con la Norma Técnica 1/1998, de 8 de octubre, de la Comisión Nacional de Mercado de Valores.

-Tipo de renta (intereses o dividendos).

-Fecha de vencimiento/distribución.

-Número de identificación fiscal de cada entidad depositaria incluida en la relación.

-Clave de cada entidad depositaria incluida en la relación.

-Razón social o denominación de cada entidad depositaria incluida en la relación.

-Número de valores de los que es depositaria cada entidad incluida en la relación a cuyos rendimientos se va a aplicar la retención adicional.

-Importe bruto total por cada entidad depositaria respecto del que se va a aplicar la retención adicional.

-Porcentaje de retención adicional.

-Importe de retención adicional por cada entidad depositaria.

3. De forma inmediata al envío de la relación global mencionada en el artículo 2 anterior a la entidad emisora y, en todo caso, antes del 10 del mes siguiente al mes en que venzan los intereses o se distribuyan los dividendos, el importe de retención adicional global resultante de la relación será abonado por la entidad depositaria a la entidad emisora, al objeto de que esta última lo integre junto con las retenciones inicialmente practicadas sobre dichos rendimientos para su ingreso en el Tesoro por el concepto correspondiente.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 7 de noviembre de 2000.– El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

## Iragarpenak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

*Errenta eta Ondare Atala*

**6.964**

Errenta eta Ondare Atalak jarraian zerrendatzen diren zergadunei egintza administratiboen jakinarazpenak bidali dizkie, baina ezinezkoa izan da interesdunei jakinarazte pertsonala egitea.

Zergadunen eta egintza administratiboen zerrenda:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

| IZENA/SOZIETATEAREN IZENA | NAN/IFZ | ALDIA |
|---|---|---|
| ANSOTEGUI PEREZ J.CRUZ | 16.225.358 | 199801199812 |
| CARRASCO MARTIN ANGEL | 16.225.014 | 199601199612 |
| CARRASCO MARTIN ANGEL | 16.225.014 | 199801199812 |
| CARRASCO MARTIN ANGEL | 16.225.014 | 199701199712 |
| COLMENERO HOLGADO FELIPE | 16.256.020 | 199601199612 |
| COLMENERO HOLGADO FELIPE | 16.256.020 | 199701199712 |
| COLMENERO HOLGADO FELIPE | 16.256.020 | 199801199812 |
| CORRES PLAZA SEVERIANO | 16.201.850 | 199701199712 |
| GIMENEZ MORENO M.MARTA | 13.068.026 | 199801199812 |
| GOICOECHEA URIARTE ARTURO | 16.213.392 | 199801199812 |
| IBARRA MERINO JESUS MARIA | 14.582.330 | 199701199712 |
| LAFIGUERA CLEMENTE ELISABET | 44.673.768 | 199801199812 |
| ORMAZABAL OCHOA DE CHINCHETRU MIGUEL ANGEL | 16.267.346 | 199501199512 |
| ORMAZABAL OCHOA DE CHINCHETRU MIGUEL ANGEL | 16.267.346 | 199701199712 |
| ORMAZABAL OCHOA DE CHINCHETRU MIGUEL ANGEL | 16.267.346 | 199601199612 |
| ORMAZABAL OCHOA DE CHINCHETRU MIGUEL ANGEL | 16.267.346 | 199801199812 |
| PALACIOS RUIZ DE AGUIRRE ROBERTO | 16.246.440 | 199801199812 |
| PENELA MORENO AGUSTINA | 15.308.565 | 199801199812 |
| POZUELO DE LA TORRE MIGUEL | 16.262.829 | 199501199512 |
| POZUELO DE LA TORRE MIGUEL | 16.262.829 | 199601199612 |
| POZUELO DE LA TORRE MIGUEL | 16.262.829 | 199701199712 |
| POZUELO DE LA TORRE MIGUEL | 16.262.829 | 199801199812 |
| RAPOSO BEDIA SANTIAGO | 16.243.116 | 199801199812 |
| REDONDO MARTIN GREGORIO | 16.234.033 | 199601199612 |
| REDONDO MARTIN GREGORIO | 16.234.033 | 199501199512 |

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCION DE HACIENDA

*Sección de Renta y Patrimonio*

**6.964**

Por la Sección de Renta y Patrimonio han sido remitidas a los contribuyentes que a continuación se detallan notificaciones de actos administrativos, no habiendo sido posible practicarlas personalmente a los interesados.

Relación de contribuyentes y actos administrativos:

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

| NOMBRE/DENOMINACION SOCIAL | D.N.I./N.I.F. | PERÍODO |
|---|---|---|
| ANSOTEGUI PEREZ J.CRUZ | 16.225.358 | 199801199812 |
| CARRASCO MARTIN ANGEL | 16.225.014 | 199601199612 |
| CARRASCO MARTIN ANGEL | 16.225.014 | 199801199812 |
| CARRASCO MARTIN ANGEL | 16.225.014 | 199701199712 |
| COLMENERO HOLGADO FELIPE | 16.256.020 | 199601199612 |
| COLMENERO HOLGADO FELIPE | 16.256.020 | 199701199712 |
| COLMENERO HOLGADO FELIPE | 16.256.020 | 199801199812 |
| CORRES PLAZA SEVERIANO | 16.201.850 | 199701199712 |
| GIMENEZ MORENO M.MARTA | 13.068.026 | 199801199812 |
| GOICOECHEA URIARTE ARTURO | 16.213.392 | 199801199812 |
| IBARRA MERINO JESUS MARIA | 14.582.330 | 199701199712 |
| LAFIGUERA CLEMENTE ELISABET | 44.673.768 | 199801199812 |
| ORMAZABAL OCHOA DE CHINCHETRU MIGUEL ANGEL | 16.267.346 | 199501199512 |
| ORMAZABAL OCHOA DE CHINCHETRU MIGUEL ANGEL | 16.267.346 | 199701199712 |
| ORMAZABAL OCHOA DE CHINCHETRU MIGUEL ANGEL | 16.267.346 | 199601199612 |
| ORMAZABAL OCHOA DE CHINCHETRU MIGUEL ANGEL | 16.267.346 | 199801199812 |
| PALACIOS RUIZ DE AGUIRRE ROBERTO | 16.246.440 | 199801199812 |
| PENELA MORENO AGUSTINA | 15.308.565 | 199801199812 |
| POZUELO DE LA TORRE MIGUEL | 16.262.829 | 199501199512 |
| POZUELO DE LA TORRE MIGUEL | 16.262.829 | 199601199612 |
| POZUELO DE LA TORRE MIGUEL | 16.262.829 | 199701199712 |
| POZUELO DE LA TORRE MIGUEL | 16.262.829 | 199801199812 |
| RAPOSO BEDIA SANTIAGO | 16.243.116 | 199801199812 |
| REDONDO MARTIN GREGORIO | 16.234.033 | 199601199612 |
| REDONDO MARTIN GREGORIO | 16.234.033 | 199501199512 |